ALHAO
ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN **ALDIZKARI OFIZIALA**

2019ko maiatzaren 24a, ostirala • 60 zk.

## II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

# IEKORAKO UDALA

**Jendaurrean jartzea zabor bilketaren tasaren 2019ko errolda**

Iekorako zabor bilketaren 2019ko tasaren errolda eginik, jendaurrean jartzen da hamabost egun baliodunez, iragarki hau argitaratzen denetik aurrera, interesdunek aukera izan dezaten aztertzeko eta, hala badagokio, egoki jotzen dituzten alegazioak eta erreklamazioak aurkezteko.

Kontribuzio errolda jendaurrean jartzean, hura osatzen duten likidazioen jakinarazpen kolektiboa egiten da, Arabako Zergei buruzko otsailaren 28ko 6/2005 Foru Arau Orokorrak 98. artikuluaren 3. paragrafoan xedatutakoaren arabera; dena den, interesdunek esleitu zaizkien kuoten aurkako berraztertzeko errekurtsoa aurkez dezakete, hilabeteko epean, iragarki hau ALHAOn argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

Jendaurrean jartzeko epea amaitutakoan kobratuko dira ordainagiriak, bankuan helbideratuta.

Borondatezko epean ordainketarik egin ez bada, premiamendu bideari emango zaio hasiera, eta dagokion errekargua aplikatuko da, Arabako Zergei buruzko otsailaren 28ko 6/2005 Foru Arau Orokorrak 28. artikuluan xedatutakoari jarraituz.

Dagozkion ondorioak izan ditzan argitaratzen da.

Iekora, 2019ko maiatzaren 14a

*Alkatea*
*JOANA LÓPEZ GARCÍA*


L.G.: VI-1/1958 ISSN: 2254-8432


Firmante: CN=DIRECCION DE SERVICIOS GENERALES, SERIALNUMBER=P0100000I, OU=sello electrónico, O=ARABAKO FORU ALDUNDIA-DIPUTACION FORAL DE ALAVA, C=ES
Emisor del certificado: CN=EAEko HAetako langileen CA - CA personal de AAPP vascas (2), OU=AZZ Ziurtagiri publikoa - Certificado publico SCA, O=IZENPE S.A., C=ES
Número de serie: 153457
Fecha de firma: 2019.05.24 05:28:59 Z